



GFI Nortek langileak entzun barik jarraitzen du

Salaketak pilatzen dira eta GFI Norteko erantzuna, tamalez, betikoa da: "No aplica, no procede".

Maiz zuen enpresarekin dituzuen arazoak bideratzeko eskatzen diguzue konpontzeko asmotan. Ezezko borobilak, itzulinguruak eta hainbat urratze jaso arren, saiatzen jarraitzen dugu eta hona hemen enpresarekin irekita ditugun gaiak:

- o **Diziplinasko kaleratzeak.** Langilearen hutsegiteen pilaketaren ondorioz egindakoak dira. **ELAtik**, legeak duen hutsegiteen sistema ezartzea exijitu dugu, eta enpresak langileari jakinaraztea, bere jarrera zuzentzeko aukera eman.
- o **2012.ko kontu-balantzea** GFI Nortek oraindik ez digu eman 2012ko ikuskatutako kontuak. Legeak hala agintzen du, eta hortaz salaketa jarri zen Lan Ikuskaritzan, zeinek GFI Norte-ri "eskatu" dio kontu horiek berehalaxe ematea zigorra jaso nahi ez badu.
- o **Heziketa.** Batzordeak gai batzuk jorratzen zituen proposamena luzatu zion enpresari: barruko erabilerako infraestruturaz sortzea, langileen parte-hartze aktiboa heziketan, enpresak web-orria eguneko tresna bezala erabiltzeko, kurtsoen argitaratzea eta langile guztientzako irekiera (Lan Ikuskaritzan ere salatuta), eta Enplegutahun-Zentroan dauden langileei lehenetsia ematea heziketa jasotzeko orduan.
- o **Lan-egutegia.** Enpresak aurkeztutako lan-egutegia ez du betetzen hitzarmenak ezarritako ordu-kopurua. Erantzun baten zain jarraitzen dugu.
- o **Kaleratze "objektiboak".** Urtarrilan 5 lankide kaleratu dituzte formula horri eutsita, baina urteko 30 egun ordainduz. Behin kaleratzea "adostuta", langileak salaketa sinatzen du kaleratze objektiboa bidegabe bihurtuz. Horrek enpresari dirua aurrezten dio, zeren pasa den urteko otsailaren 10era arte (Lan Erreforma) 45 egun ordaindu behar zuen, eta hortik aurrera 33.
- o **Osagarrien absortzioa** (antzinatasuna) soldata-orrian. GFI Norteko ELA ordezkariak **osagarrien absortzioa ekiditeko (baita antzinatasuna ere) ekintzak hasi dituzte.** Salaketa honen inguruko zehatzak emango dizkizuegue aurrerago.

Legeak agintzen duena ez betetzeagatik salatu behar izatea lotsagarri iruditzen zaigu. Horrekin GFI Nortek enpresa honetako **benetako aktiboa diren langileei** errespetu falta baino ez die erakusten.

Kaleratze mota	Kalte-ordaina	Langabezia kobratzeko eskubidea
Objektiboa	Urteko <u>20 egun</u> (gehienez 12 hil)	BAI
Diziplinaskoa	EZ	BAI
Bidegabekoa	<u>45 egun</u> 2012.ko Otsailaren 10era arte (Lan erreforma) y 33 egun hortik aurrera (gehienez 24 hil)	BAI
Borondatezko baja	EZ	EZ

"Zeregin". Zer egin behar ez den adibidea.

ELA sindikatu-ataletik Zeregin (LANTIK) proiektuaren lankide guztiei elkartasuna adierazi nahi diegu. Kudeaketa txar eta gaiztoa sufritzen ari gara jakin badakigu. Maiz agertzen diren presio eta urduritasunak lan-giro tirabiratsu sortzen du. Gure aldetik babes emateko gaude eta zuen iradokizunak, keak, eta aparteko ordukin adi egongo gara zuen baldintzak ahal dugun neurrian hobetzeko.

320 egun falta dira hitzarmen barik geratzeko

*Azken 35 urteko eskubide eta erosahalmenaren galerarik handiena **Bizkaiko hitzarmenaren sinatzea** baino ezin du ekidin.*

Urtarrilaren 29an, Bizkaiko Bulego eta Langeletarako hitzarmena negoziatuko duten sindikatu guztiak bildu dira. **ELAK plataforma bat aurkeztu du (hitzarmenaren proposamena) oso ondo landuta** eta hurrengo gaiak jorratzen dituena:

- o **Subrogazioa.** Proiektu baten kudeaketa enpresaz aldatzen bada, oso inportantea da lehenengo enpresako langileek euren lanpostu eta baldintzak mantentzea enpresa berrian.
- o **Ultrajarduera.** Hitzarmen berria indarrean egon behar du behin iraungituta eta berria negoziatzen den bitartean. Horrek Estatuko hitzarmenera ez pasatzea onartuko du, ekartzen duen galera ekidinez.
- o **Erreformaren kontrako klausulak.** Enpresek lan-erreforma ezar dezaten ekiditeko asmotan, horren kontrako klausulak sartu dira. Era horretan, enpresek ezin izango dute aldebakarreko soldataren jaitisierak egin, lan-jardunaldiaren aldaketak, egutegiak, eta abar
- o **Soldataren igoerak.** Benetako erosahalmena mantentzeko, planteatutako igoerak KPIrenak baino handiagoak dira.
- o **Urteko orduen murrizketa.** Urteko lan-orduen murrizketa eskatzen da. Helburua familia eta lan-bizitza bat egitea da.

Negoiazioaren hasieran ELAK aurkeztutako plataforma dela kontzienteak izan behar gara. **Gu gara hitzarmen hau lortzeko benetako armak.**

ELAren ustez, oso inportantea da hitzarmen on bat sinatzea, gure lan-baldintzak mantendu eta hobetzeko. **Ez dugu hitzarmen txarrago bat sinatu behar sinatze hutsagatik.** Hitzarmena behetik sinatzen bada, edota beharrezkoa den